

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2025/2026 ikasturtean unibertsitate ikasketak egin dituzten ikasle gazteei, bizi diren udalerritik beste udalerrira batera joan behar badute, dirulaguntzak emateko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

2025/2026 ikasturtean unibertsitate ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2026ko ekainaren 1eko bilkuran onetsia, aipatutako arau orokorretan eta hurrengo apartatuetan xedatutakoaren arabera egingo da.

1. Deialdiaren xedea

Laguntza hauen helburua da unibertsitate prestakuntza arautua jasotzeko aukera ematea unibertsitate ikasketak egiteko beren etxebizitza duten udalerritik ikastegi publiko edo pribatuak dauden udalerrira joan-etorria egin behar duten Arabako ikasleei.

2. Onuradunen betekizunak

2.1. Oro har, honako hauek izan daitezke onuradun, aurrez eskaera eginda:

1. 30 urte edo gutxiago dituzten ikasleak, eskaera egiten den urtean beteta.
2. 2025ko abenduaren 31n Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean erroldatuta daudenak.
3. 2025/2026 ikasturtean ondoko artikuluan jasotako ikasketa batean matrikulatuta daudenak.
4. Eskatzailearen ohiko bizilekua eta ikastegia ezin daitezke udalerrira berean izan, eta haien artean ezin daiteke izan 150 km baino gehiago.

2.2. Berariaz, 2025eko abenduaren 31n 20 urtetik beherakoek, tarte osagarriaren onuradun izan ahal izateko, garraio-txartel ofizial pertsonalizatua izan beharko dute, hala nola BAT, BARIK edo MUGI txartela, edo, bestela, udalerrira batek sustatutako eta Arabako Foru Aldundiko sail eskudunak baimendutako garraio kolektibo itundua edo linea erabili dutela egiaztatu beharko dute.

Ezin daitezke izan laguntza hauen onuradun Eusko Jaurlaritzak ikasturte bakoitzerako joan-etorrietarako eta/edo egoitzarako ematen dituen laguntzak jaso dituzten pertsonak, beka-mota edo modalitatea edozein delarik ere.

3. Ikasketak eta eskola-aldia

Deialdi honetako laguntzak ikasketa hauetarako bakarrik dira:

Unibertsitate ikasketak:

- Unibertsitate graduiko ikasketak, karrera-amaierako proiektuak barne.
- Musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinu ikasketen goi-maila.

Kanpoan uzten dira ikasketa mota hauek: edozein motatako masterrak, doktoregoak, gai jakin batzuetako unibertsitate adituak, beste prestakuntza batzuetarako edo alderdi batzuetarako prestakuntza ikastaroak (oposizioak eta antzekoak), ikerketa, graduondoa eta espezializazioa, urrutiko irakaskuntzak eta, oro har, homologatu eta ofizialki onartu gabeko ikasketa eta ikastaroak.

Diruz lagundutako eskola-aldia ikasturte bakoitzeko irailtik ekainera artekoa da.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

4.1. Tarte orokorra.

Bigarren oinarriaren barnean diren onuradunentzako laguntzen gehieneko zenbatekoa kopuru finko bat izango da, eta ikaslearen bizilekua dagoen herriaren eta hura joaten den ikastegiaren arteko distantziaren arabera zehaztuko da.

- a) 40 km edo gutxiagoko distantzia: 200,00 euro.
- b) 40 km-tik gorako distantzia, 80 km-raino: 280,00 euro.
- c) 80 km-tik gorako distantzia, 150 km-raino: 400,00 euro.

Distantziak zehazteko, <http://maps.google.es> web tresna erabiliko da. Horiek kalkulatzeko, ibilbiderik laburrena hartuko da kontuan.

Aurrekontuan erabilgarri dagoen zenbatekoa ez bada nahikoa kopuru horiek finantzatzeko, laguntzak hainbanatu egingo dira saldo horren mugara iritsi arte.

4.2. Tarte osagarria.

2.2 apartatuko onuradunentzako laguntzen zenbatekoa aldakorra izango da, eta ohiko bizilekua dagoen herritik ikastegia dagoen herrirako garraioaren kostuaren arabera zehaztuko da, honako modu honetan kalkulaturik:

– Kalkulu oinarria:

2025eko abenduaren 31n 20 urte edo gutxiago dituzten pertsonentzat.

Bizilekua dagoen herritik ikastegia dagoen herrirako joan-etorriaren kostua kalkulatzeko honako hauek aplikatuko dira: errepideko erabilera orokorreko bidaiari garraio erregularren eta eskariaren araberrako garraioaren emakida publikoen tarifa ofizialak –ikasturtean aplikatzekoak direnak–.

Udal batek sustatutako linea edo garraio kolektibo itundua erabiltzen bada, garraioaren sustatzaileak egiaztatutako kostua hartuko da kontuan.

– Finantzaketa ehunekoa:

Kalkulu-oinarriaren ehuneko 100, aurrez aurreko eskola-aldian gutxienez ehuneko 50eko desplazamendu-ehunekoa lortzen duten onuradunentzat.

4.3. Hainbanaketa.

Aurrekontuan erabilgarri dagoen zenbatekoa ez bada nahikoa tarteetako edozeinetarako laguntzak finantzatzeko, zenbatekoak hainbanatu egingo dira saldo horren mugara iritsi arte.

5. Epea eta eskaeren aurkezpena

5.1. Eskaerak ekainaren 22tik uztailaren 6ra bitartean aurkeztu ahalko dira hemen:

– Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, telematikoki gaitutako izapide espezifikoa bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-convocatoria-gastos-desplazamiento-estudios-no-universitarios?redirect=/es/inicio/tramites>.

Horretarako, eskatzaileek aldeztu behar dute identifikazio pertsonala eta sinadura elektronikoa ahalbidetzen dituen BAKO edo egoitza elektronikoa onartutako beste ziurtagiri bat, hala nola NAN elektronikoa, lizenpe, etab. (horri buruzko informazioa eskuragarri dago esteka honetan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza-nola-sartu>).

Era honetako laguntzak jaso nahi dituzten interesdunek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute egoitza elektronikoa eskuragarri jarritako inprimaki normalizatua betez, eta, horrekin batera, 5.3 puntuan adierazitako beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte nahitaez (tarte orokorrerako dokumentazioa, eta, hala badagokio, tarte osagarriarako adierazten dena, baldin eta tarte hori ere eskatzen badute).

Eskaera eta 5.3 puntuan adierazitako nahitaezko dokumentazioa erregistro hauetan ere aurkeztu ahal izango da:

– Gazteriaren Foru Erakundearen erregistroan: norberak edo behar bezala egiaztatutako ordezkari baten bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak Gasteizko Jesusen Zerbitzariak kaleko 5. zenbakian dituen bulegoetan, 12:00etatik 14:00etara.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

5.2. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskaera inprimakia eskatzaileak bete beharko du.

5.3. Dirulaguntza lortzeko, nahitaezkoa izango da eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztea edo administrazioak agiri horiek eskuratzearen aurka ez egitea:

a) Foru administrazioak administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruzko beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, bai eta dirulaguntza honen administrazio izapideak egiteko beharrezkoa den beste edozein ere. Hori dela eta, ez dira dirulaguntzen eskatzaileei ez zaizkie eskatuko administrazioen artean trukatu ahal diren datuak, baldin eta interesdunak datuak erabiltzearen aurka egiten ez badu; interesdunak aurka eginez gero, hark aurkeztu beharko ditu behar diren datuak edo agiriak. Administrazio publikoek datuak trukatzeko oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen denaren arabera, herritarrek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoek egindako agiririk, jatorrizko agiririk, aplikatzen den araudian eskatzen ez den daturik edo dokumenturik edo interesdunak lehenago administrazioen bati aurkeztutakorik. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Interesdunak aurka egiten ez badu, trukatu ahal diren datu hauek bilduko dira:

– Dirulaguntzaren eskatzailea izango den ikaslearen NANA.

– Ikaslearen errolda ziurtagiria, 2025ko abenduaren 31n Araban erroldatuta dagoela egiaztatzen duena. Trebiñuko enklabean bizi diren pertsonak errolda orria aurkeztu beharko dute.

b) Dirulaguntza eskatu duen pertsonak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

b.1) Tarte orokorrerako, bete beharreko eskaerari honako agiri hauek erantsi behar zaizkio:

– Matrikulazioaren ziurtagiria, ikaslea ikasturtean zehar hirugarren oinarrian aipatutako ikasketetan matrikulatuta dagoela egiaztatzen duena.

– Bekaren bat jaso bada, beka horren ziurtagiria, zenbatekoa eta nork eman duen adierazten dituen.

– Egoitza elektronikoaren bidezko hirugarrenen alta (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava?inheritRedirect=true>), edo kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, dagokion finantza erakundeak modu frogagarrian emana. Eskaera aurkezteko foru egoitza elektronikoan horretarako gaitutako izapide elektronikoa erabiltzen bada, nahitaez bete beharko da hirugarrenen alta egoitza elektronikoaren bidez.

– Trebiñuko enklabean bizi diren pertsonentzat, ikaslea erroldatzeko txartela 2025eko abenduaren 31n.

b.2) Interesdunak tarte osagarria eskuratu nahi badu, honako dokumentazio espezifiko osagarri hau ere aurkeztu beharko du:

– Garraio publikoaren txartel pertsonalatuaren fotokopia (hala badagokio), hala nola Bat, Barik edo Mugi, edo trenarena.

— Egindako garraio gastuen eta haien ordainketaren ziurtagiriak. Honako ziurtagiri hauek jotzen dira baliozkotzat:

I. Erakunde publiko kudeatzailearen ziurtagiria, ikasturtean garraio publikoko txartel pertsonalizatuarekin egindako joan-etorri guztiak jasotzen dituena.

II. Garraio kolektibo itunduaren kasuan, ikastetxeak edo ikasleen gurasoen elkarrekin eman-dako ziurtagiria, non agertu behar baitira ikasleak egindako garraio gastu eta ordainketa guztiak, bai eta 2025/2026 ikasturtean garraioaz arduratu den enpresa zein izan den ere. Gainera, onuradunak ikastetxeari edo ikasleen gurasoen elkarrekin ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztu beharko da.

— Ikastetxearen egutegi ofiziala, honek zigitatua, 2025/2026 ikasturteko eskola-egunak jasotzen dituena.

— Nolanahi ere, eguneroko joan-etorriko joan-etorri zuzen edo konbinatu bat bakarrik hartuko da kontuan.

5.4. Eskatzailea ezin bada Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu, Gazteriaren Foru Erakundeak Vitoria-Gasteizko Jesusen Zerbitzarien kaleko 5. zenbakian dituen bulegoetan aurkeztu ahal izango du eskabidea, aurrez aurre eta behar bezala egiaztatutako ordezkari baten bidez, 12:00etatik 14:00etara. Kasu horretan, NANaren kopia ere aurkeztu beharko da.

5.5. Eskabide horietan berariaz jasoko da jakinarazpenetarako adierazten den helbidea, eta eskabide horiek aurkezteak berekin ekarriko du deialdi honetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

5.6. Aurkeztutako eskabideak osatu gabe badaude edo oinarri hauetan eskatutako agiri-
ren bat aurkezten ez bada, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta artxibatu egingo dela.

5.7. Ikasle bakoitzak eskabide bat aurkeztu ahal izango du.

6. Aurrekontu erabilgarritasuna

Programa honi berrehun eta berrogeita hamar mila (249.738,01) euro esleituko zaizkio, 71100. G/232750/48000750 partidaren kargura 2026ko ekitaldirako.

Tarte espezifikorako esleitutako zenbatekoa tarte orokorrean soberako aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera izango da. Soberakinik badago, zenbateko hori berariazko tarterako erabiliko da. Gainera, zenbateko gehigarri bat gehitu ahal izango zaio deialdiari, berariazko tarterako, zuzkiduraren ehuneko 100ekoa, betiere aurrekontu-kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da, baina horrek ez du esan nahi eskaera berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ebazteko beste epe bat hasiko denik ere.

7. Ebazpen-proposameneko txostena

Dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera osatutako balorazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak.

Batzorde horrek emakida-proposameneko txosten bat idatziko du, eta Gazteriaren Foru Erakundearen erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia aldatzen duen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta antolatzen eskumena duen organoak ebazteko du, eskaerari baiezkotzea edo ezezko emanez, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Tarte bakoitzeko eskabideak onartzeko edo ukatzeko erabakia bereiz har dezake ebazteko ahalmena duen organoak. Kasu horretan, laguntzak bereizita ere ordaindu ahal izango dira.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak, bai tarte orokorrerako bai osagarrirako, egoitza elektronikoan jakinaraziko zaizkie eskatzaileei. Eskabidea aurrez aurre aurkezten bada, gainera, bertan agertzen den helbidean egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan aurreikusitako moduetan.

Entzunaldiaren izapidea alde batera utziko da, ebazpenean ez baitira kontuan hartzen eskatzaileek aurkeztutako egitate eta agiriak baino.

Deialdi hau eta haren ondorioz egiten diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

8. Laguntzak ordaintzea

Ordainketa bakarra izango da eta onuradun bakoitzaren izenean egingo da.

9. Interpretazioa

Deialdi hau interpretatzean zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak argituko du.

10. Baliabideak

Deialdi hau eta horren ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

11. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek deialdi honetan emandako dirulaguntzak galdu ahal izango dituzte, espedienteak ireki ondoren, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako kasuetan.

12. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

13. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatu ez denari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak arautuko du, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta aplikatu beharreko gainerako arauak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 12a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN